

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AUDIKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2018ko lehenengo seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea

Audikanan, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2018ko lehenengo seihilekoko) ordaindu behar dutenen errolda egin delarik, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunetz jendaurrean egongo da errolda hori, interesa dutenek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Audikanako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, zergen foru arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2018ko abuztuaren 10ean hasi eta irailaren 10ean bukatuko da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2018ko irailaren 10ean kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat emango du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Audikanako Administrazio Batzarrak kudeatuko du zuzenean zordunketa, ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan egin beharrekoa.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekguarekin, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Audikana, 2018ko uztailaren 10a

Lehendakaria

AMALIA MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ FERNÁNDEZ DE BETOÑO